



EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDE COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO NTASUN BATZORDEA

5-2021 expedientea [REDACTED]
Expediente 5-2021 [REDACTED]

**Ez onartzeko erabakia, 2021-07-01ean
jakinarazita.**

2021eko ekainaren 25ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen helbide elektronikoan [REDACTED] en kexa-idazki bat jaso zen. Horretan adierazten du apirilaren 7an, Muskizko Udalerrian, bere amarekin intzidentzia bat gertatu zela, debekatutako noranzkoan zirkulatzen zuen turismo batek haren txakurra harrapatu baitzuen.

Muskizko udalzaingoekin harremanetan jartzen hainbat aldiz saiatu ondoren, haien hitz egin zuela, udalzaingoak bere etxeen aurkeztu zirela eta beste kudeaketa batzuk ere egin zituztela adierazten du, baina horren guztiaren ondoren erreklamatzaileak uste du harrapaketa ez dela behar bezala tramitatu eta, esaten duenaren arabera, beste inora jotzerik ez daukanez, helbide honetara jotzea erabaki du.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizugu, zure lankidetzaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideen portaera desegokiak desagerrarazten saiatzea baita. Dena den, jakinarazi behar dizugu Batzorde honek ez daukala gai horretan esku-hartzeko eskumenik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen duen legearen arabera, Batzorde honek Euskadiko polizia kidegoak mendean dituzten administrazioek eskatuta baino ezin du jardun -hau da, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak edo kasuan kasuko Udal Agintaritzak eskatuta- edo Arartekoak eskatuta.

Ondorioz, Batzorde honek ezin duenez jardun kexak partikular batek aurkeztutakoak badira, gure jarduketa kasu honi dagokionean amaitutzat eman behar dugu eta, tamalez, jakinarazi behar dizugu zure mezu elektronikoan helarazi diguzun gaia ezin dugula onartu.

Acuerdo de Inadmisión comunicado 01-07-2021

Con fecha 25 de junio de 2021, se recibe en el email de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, escrito de queja presentado por Don [REDACTED], en el que manifiesta que tuvo lugar una incidencia ocurrida con su madre el pasado día 07 de abril en el término municipal de Muskiz, hecho en el que fue atropellada su perra por un turismo que circulaba en dirección prohibida.

Manifiesta que tras varios intentos de ponerse en contacto con la policía municipal de Muskiz, hablar con ellos, presentarse en su domicilio y otras gestiones, considera el reclamante que no se ha realizado de manera correcta la tramitación del atropello y no teniendo, según lo indica, otra dirección a la que recurrir, lo hace finalmente a esta.

En primer lugar, se agradece su colaboración para tratar de erradicar cualquier comportamiento no adecuado entre los miembros de la Policía Vasca. Sin embargo, hemos de comunicarle que esta Comisión carece de competencia para intervenir en este caso.

Según la ley que la crea, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, sólo puede actuar a instancia de las administraciones de las que dependen los cuerpos policiales vascos. Es decir, el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco o Autoridad Municipal correspondiente, o del Ararteko.

En consecuencia, y puesto que esta Comisión no puede intervenir frente a quejas planteadas por particulares, tenemos que dar por concluida nuestra actuación en este caso, por lo que



lamentamos tener que comunicarle la inadmisión
de la cuestión que nos traslada en su correo.

Hala ere, egokitzat jotzen baduzu, Arartekoari
jakinarazi ahal diozu eta zure kexa horren aurrean
aurkeztu.

Jakinaraz bekio erabaki hau eskatzaileari, eta
erabaki hori hartzen da Vitoria-Gasteizen 2021eko
uztailaren 1ean.

Adeitasunez.

No obstante lo anterior, si lo considera
conveniente, puede ponerlo en conocimiento y
plantear su queja ante el Ararteko.

Procédase a comunicar al solicitante esta
decisión, lo que se acuerda en Vitoria-Gasteiz a
01 de julio de 2021.

Atentamente.